

Euskadiko ingurumen- sektorearentzako nazioarteko aukera- merkatuak

2022ko Maiatza



Indizea

1.1. Munduko ingurumen-merkatuaren balioa	7
1.2. Ingurumen arloko ondasun eta produktuen nazioarteko merkataritza.....	15
1.3. Ingurumen arloko merkatu globalaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak (2027) 20	
2.1 Analisi konparatiboa	21
2.1.1 Ingurumen arloko merkatuaren dimentsionamendua eta balioa.....	21
2.1.2 Merkatu bakoitzeko balio-kate garrantzitsuenak.....	23
2.1.3 Harreman komertzialak eta merkatura sartzeko oztopoak.....	27
2.1.4 Ingurumen arloko jarduna	27
2.1.5 Ingurumen-araudia betetzea	28
2.1.6 Erakargarritasuna euskal enpresarentzat	28
2.2 Analisi konparatiboaren ondorioak.....	30
Herrialdeen ikuspegi xehea	32
Analisirako irizpideak eta metodologia.....	90

Disclaimer

Basque Trade & Investmet-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzaileen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzaileei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonen.

Hartzaileak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzaileak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.



Laburpen exekutiboa

Ingurumen arloko merkatu globalaren ezaugarriak

Ingurumen arloko merkatu globala etengabe hazi da 2010 eta 2020 artean, azken honetan 1.427 bilioi USD-eko bolumena izateraino.

Aztertzen badugu ingurumen arloko merkatuko balio-katearen eta segmentuaren arabera banaketa, lau merkatu-segmentu handi nabarmentzen dira gainerakoen aldean: bi baliabideen balio-katean, zehazki, *Clean Energy Systems* (259,7 mila milioi USD) eta *Water utilities* (225,6 mila milioi USD); eta beste bi zerbitzuen balio-katean, zehazki, *Solid Waste management* (213,8 mila milioi USD) eta *Water Treatment Works* (189,3 mila milioi USD).

Geografikoki, AEBetako da ingurumen arloko merkatu garrantzitsuen (% 29), eta ondoren datoz EBkoa (% 27) eta Japoniakoa (% 10). Halere, munduko araudi-esparru zorrotzena daukan Europa liderra da hainbat segmentutan, batez ere hondakinen berreskuratzearekin eta hondakin uren tratamenduarekin zerikusia duten segmentuetan. AEBak, beren aldetik, batez ere liderrak dira ekipamenduetan eta ingeniari-tza zein aholkulari-tza zerbitzuetan.

Etorkizunari begira, azken aurreikuspenen arabera badirudi merkatuak handitzen jarraituko duela, urteko % 5,3ko batez besteko erritmoan, 2027an 2.075 bilioi dolarreko balioa izateraino. Hazkunde handienak segmentu hauetan gertatuko dira: hondakin arriskutsuen kudeaketa (e-waste direlakoak barne), ingeniari-tza eta aholkulari-tza zerbitzuak, atmosferako kutsadura kontrolatzeko sistemak eta uren tratamendua.

Nazioarteko merkataritzari dagokionez, AEBek eta EBk biltzen dituzte munduko salerosketa guztien % 60, nahiz eta merkataritzak merkatuaren dimentsioan daukan garrantzia ez den berdina kasu guztietan: AEBetan % 11,6koa, Ekialde Ertainean % 41koa, Latinoamerikan % 36koa eta EBn % 19koa. Bestalde, Estatutik abiatzen diren esportazioak Frantzia, Alemania, Portugal eta AEBetara bideratzen dira gehienbat.

Euskadiko sektorearentzak o aukera- herrialdeak

Faktore makroekonomiko kuantitatiboetan eta ingurumen arloko jardunean oinarriturik egin den azterketa honi esker posible izan da elkarrekin alderatzea garrantziaren arabera aukeratutako mundu osoko 25 herrialderen potentziala.

Aukeratutako 25 herrialde horietan, uraren ziklo integralaren katea da inportazioetan garrantzi handiena daukan katea (balio osoaren % 40), eta ondoren datoz ingurumena monitorizatu eta analizatzeko ekipoen katea, hondakinen kudeaketarako katea eta aire eta kutsadura arloetako katea.

Hala, azterketa egin ondoren lehentasun-matrize bat osatu da aztertutako 25 herrialdeentzat, eta hauek izan dira ateratako ondorioak:



- Balioari begiratuta, Estatu Batuak, Alemania eta Japonia dira munduko merkatu garrantzitsuenak ingurumen arloan.
- LatAm eskualdeko herrialdeak bereziki nabarmentzen ari dira euren ingurumen arloko merkatuen hazkunde bizkorrengatik. Merkatu hasiberriak dira, oraindik garapen teknologikoko prozesuan daudenak.
- Ingurumen arloan balio handia duten zenbait merkatuk –esaterako Brasil eta Txinak- oztopo handiak jartzen dituzte euren merkatuetara sartzeko, inbertsioak egiteko potentzialaren kaltetan batzuetan.
- Ingurumenaren arloan osasun maila oso handia duten herrialdeak –esaterako herrialde eskandinaviarrak– ez dira hain erakargarriak inbertsioak egiteko, ingurumenari dagokionez garatuago dauden merkatuak direlako.
- Euskadirekin lotura komertzial sendoak dituzten herrialdeek –adibidez, Frantzia, Erresuma Batua, Italia edo Alemania– ingurumen-kategoriako produktu asko inportatzen dituzte.

Baita ere azertu da euskal enpresentzako erakargarritasuna, oinarritzat harturik elkarriketen eta bakarkako galdetegen bidez jasotako datuak, eta lehentasunezko zat jo dira merkatu hauek:

Lehentasunezko merkatuak

- Europa: Frantzia, Portugal, Alemania, Erresuma Batua, Italia. Bereziki, Frantzia eta Portugal merkatu ezin hobeak dira esportatzen hasi nahi duten enpresentzat.
- AEBak (nahiz eta ikusi den euskal enpresak Estatu zehatz batzuetan zentratu beharko direla, bakoitzaren errealitatea desberdina delako).
- LatAm: Txile, Kolonbia
- Asia: Japonia, Hego Korea



1. Ingurumen-sektore globalaren ezaugarriak

Ingurumen-sektore globalean hiru kate nagusi bereizi dira: *Services* (Zerbitzuak), *Equipment* (Ekipoak) eta *Resources* (Baliabideak). Jarraian datorren taulan zehaztuta daude kate bakoitzak bere baitan hartzen dituen jarduerak eta bezeroen kategoria nagusiak:

Environmental Testing & Analytical Services (Ingurumen arloko analisi eta proba zerbitzuak)	Ingurumen-laginen analisiak eta probak egiten dituzte (lurzorua, ura, airea eta ingurumeneko beste hondakin batzuk)	• Herri Administrazioak • Ingeniaritzak eta aholkularitzak • Industriak • Berroneratze lanen eta hondakin arriskutsuen kontratak
Wastewater Treatment Works (Ur arazketako lanak)	Etxeko, merkataritzako eta industriako hondakin-uren bilketa eta tratamendua.	• Udalak • Ura kudeatzeko enpresa publiko eta pribatuak • Sektore pribatua (merkataritza, industriak)
Water Utilities	Ur hornidura amaierako erabiltzaileentzat	• Ur kontsumitzaileak
Solid Waste Management (Hondakin solidoen kudeaketa)	Hondakin solidoen bilketa, prozesamendua eta kudeaketa	• Udalak • Beste administrazio publiko batzuk • Hondakinak kudeatzeko esleipenak • Industriak
Hazardous Waste Management (Hondakin arriskutsuen kudeaketa)	Hondakin arriskutsu, mediko eta nuklearren bilketa, prozesamendua eta kudeaketa	• Administrazio eta Agentzia publikoak • Erauzketa-industriak (petrokimikoa, meatzaritza, siderurgia) • Sektore nuklearra • Beste industria batzuk
Remediation and Industrial Services (Berroneratze zerbitzuak eta zerbitzu industrialak)	Kutsatutako lekuen eta eraikinen garbiketa, eta martxan dauden instalazioen ingurumen-garbiketa	• Administrazio eta Agentzia publikoak • Obren sustatzaileak • Eguzki energiako lantegi eta instalazioen jabeak • Beste industria batzuk
Environmental Consulting & Engineering (C&E) (Ingurumen arloko ingeniarietza eta aholkularitza)	Ingeniaritza, aholkularitza, diseinua, ingurumenaren ebaluazioak, <i>project management</i> , monitorizazioa eta analisia	• Herri Administrazioak • Ur eta hondakinen esleipendunak eta kudeatzaileak • Industria handiak • Beste bezero batzuk



• Environmental Equipment (ingurumen arloko ekipamenduak)		
Water Equipment & Chemicals (Uraren tratamendurako ekipo eta produktuak)	Uren eta hondakin uren sektoreetarako ekipamenduak, hornikuntza eta mantenimendua eskaintzen dute	• Udalak eta beste administrazio publiko batzuk • Ur eta hondakinen esleipendunak eta kudeatzaileak
Instruments & Information Systems (Informazio-tresnak eta -sistemak)	Ingurumen-laginak aztertzeo tresneria eskaintzen dute, sistemak eta softwarea barne	• Ingurumen arloan ari diren eragile guztiak
Air Pollution Control Equipment (Atmosferako kutsadura kontrolatzeko ekipoak)	Atmosferako kutsadura kontrolatzeko ekipamendua eta teknologia eskaintzen dute	• <i>Utilities</i> • Hondakinak energetikoki balorizatzeko lantegiak • Industriak, batez ere automozio sektorekoak
Waste Management Equipment (Hondakinak kudeatzeko ekipoak)	Hondakin solidoak, likidoak eta arriskutsuak kudeatu, biltegitatu edo/eta garraiatzeko ekipamenduak, birziklapenerako eta berroneratzeko ekipamenduak barne	• Udalak eta beste administrazio publiko batzuk • Hondakinak sortzen dituzten industriak • Hondakin solidoak kudeatzeko enpresak
Process & Prevention Technology (Prozesu- eta prebentzio-teknologiak)	Prozesuetan eta hondakinak berreskuratzean kutsadura prebenitzeko teknologiak	• Ingurumen arloan ari diren eragile guztiak
• Environmental Resources (ingurumen arloko baliabideak)		
Water Utilities	Ur hornidura amaierako erabiltzaileentzat	• Amaierako ur kontsumitzaileak
Resource Recovery (Baliabideak berreskuratzea)	Azpiproduktu industrialetatik edo amaierako hondakinetatik berreskuratu eta eraldatutako materialen hornikuntza	• Udalak eta beste administrazio publiko batzuk • Hondakinak sortzen dituzten industriak • Hondakin solidoak kudeatzeko enpresak
Clean Energy Power & Systems (Energia garbien sistemak)	Energia berriztagarrien sortzaileak	• <i>Utilities</i> • Industriak eta kontsumitzaileak




1.1. Munduko ingurumen-merkatuaren balioa

Ingurumen-sektore globala

Environmental Business Intelligence (EBI) agentziaren datuen arabera, ingurumen-sektore globalak % 4,4ko hazkundea izan du CAGR tasan, eta 928.000 milioi USD-etik 1,427 bilioi USD-era (gutxi gorabeherako datuak) hazi da 2010 eta 2020 bitartean. Epealdi horretan portzentajezko hazkunde handiena izan duen partida *Resources* (Baliabideak) izan da, balio globalaren % 35,6tik % 39,4raino igo delarik (329 mila milioi USD-tik 561 mila milioi USD-ra).


1. irudia: Ingurumen-merkatu globalaren bilakaera (2010-2020 artean, mila milioi USD)



The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Azterketa geografiko bat eginez gero, ikusten da AEBetako delat merkatu garrantzitsuen, balio globalaren % 29arekin, eta atzetik dituela EBkoa (% 27) eta Japoniakoa (% 10). Hiruren artean, merkatu globalaren bi heren hartzen dituzte.

2. irudia: Ingurumen-merkatu globalaren banaketa geografikoa (2020, balio globalaren gaineko portzentajea)




The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)



Eskualde mailako balio-kateen banakapenari erreparatuz gero, badaude hainbat gauza aipagarri: AEBak nagusi dira Ekipamenduen merkatuan eta, batez ere, Zerbitzuenean; aldiz, Europar Batasuna da nagusi, argi eta garbi, Baliabideen merkatuan. Munduko gainerako tokietan nabarmentzekoa da Asiak (Japoniak izan ezik) ekipamenduen arloan eman duen urratsa, eskualdeko guztizkoaren % 32raino iritsiz. Hala, 69.000 milioi USD inguruko merkatu-balioa erdietsi du, Europaren aurretik eta AEBen parean (69.500 milioi USD) kokatuz.


3. irudia: Ingurumen arloko merkatu globalaren banaketa geografikoa balio-kateen arabera (2020, mila milioi USD)



The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Banaketa balio-katearen eta segmentuaren arabera aztertuz gero, ikusten da ingurumen arloko merkatuan 4 segmentu handi nabarmentzen direla: *Clean Energy Systems* (259,7 mila milioi USD) eta *Water utilities* (225,6 mila milioi USD) Baliabideen balio-katean, eta *Solid Waste management* (213,8 mila milioi USD) eta *Water Treatment Works* (189,3) Zerbitzuenean. Bestalde, hauek dira Ekipamenduen balio-kateko bi segmentu handienak: *Water Equipment & Controls* (115 mila milioi USD) eta *Air Pollution control* (92,8 mila milioi USD). Azkenik, ingurumen arloko ingeniari- eta aholkularitza-merkatuak 80.000 milioi USD inguruko balio zenbatetsia erdietsi zuen 2020an.

4. irudia: Ingurumen arloko merkatu globalaren banaketa balio-kateka eta segmentuka (2020, mila milioi USD)





The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Nola sektore horiek munta handikoak diren nazioartean eta nola bat datozen sektoreak Euskadin dituen gaitasunekin, xeheki aztertu dira euren negozio-arloak eta segmentuak:

- Hondakinen kudeaketa
- Uraren kudeaketa integrala (zeinak bere baitan hartzen baititu 3 balio-kateetako segmentu desberdinak)
- Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniarietza


Hondakinen kudeaketa globala

Badira hainbat joera erakusten dutenak hondakinen kudeaketaren negozioa nabarmen haziko dela maila globalean datozen urteetan. Hona hemen zenbait: biztanleriaren hazkundera, bizi-maila altuagoak, osasun publikoko sistemen zabalkundera, industrializazio eta urbanizazio prozesuak merkatu gorakorretan, eta produktu elektronikoaren zein kontsumorako produktuen bizi-ziklo laburragoak.

Hala, Munduko Bankuaren kalkuluen arabera, 2025erako hiri-hondakinen bolumena % 80tik gora haziko da 2012ko kopuruarekin alderatuta (2025ean 2,2 bilioi tona eta 2012an 1,3 bilioi tona).

Merkatu honetan desberdintasun handiak daude *per capita* errenta handieneko herrialdeen eta errenta txikienekoaren artean; alde hori nabarmena da hondakinen bilketan, % 100 inguruko tasetatik % 35eraino jaisten delarik herrialde batzuetatik besteetara. Horixe erakusten dute hondakinen sorkuntzari buruzko grafiko honetan bildutako datuek:

4. irudia: Hiri-hondakinen sorkuntza (2017, milioi tona)



UBS, ELGAren datuetan oinarrituta

Garapen bidean dauden herrialdeei dagokienez, alde handia dago hirietatik landa eremuetara. Txinako hirietan hondakinen bilketa % 53koa bazen 2006an, 10 urteren buruan, hots, 2016an % 97koa izatera iritsi zen, baina gainerako eremuek tasa askoz baxuagoak izan zituzten. Hala, aurreikusten da horrelako herrialdeek, besteak beste Txina, Brasil, India eta Mexikok, inbertsio handiak egingo dituztela bilketa-tasa horiek handitzeko.

Bestalde, herrialde aurreratuenetan -eta, oro har maila globalean- aurreikusten da hondakinen birziklapen-tasak handitzen jarraituko duela modalitate hegemoniko bilakatu arte, bai ingurumen-azterna murrizteko beharrazatik eta bai energian aurreztu ahal izateko, nahiz eta ekonomia aurreratuenetako batzuk ere oso urrun dauden premia eta helburu horretatik. Horren adibide dugu AEBen birziklapen-portzentajea, zeren EPAk 2017an emandako datuen arabera, hondakinen % 53 baino




gehiago bideratzen zen lur betegarrietara, % 34 materialak berreskuratu eta birziklatzera, eta gainerako % 13a erre egiten zen energetikoki aprobetxatzeko.

Horregatik guztiagatik, gaur egun alde handiak daude birziklapen-jardueran bai geografikoki eta bai sektoreka, baina egia da joera batzuk nabarmentzen direla:

- EB nagusi da maila globalean birziklapena bultzatzeko ahaleginean, nahiz eta alde handiak dauden Estatu kideen artean: Alemanian ia ez da erabiltzen zabortegirik, baina Espainian zabortegietara bideratzen dira hondakinen % 50 baino gehiago, eta portzentaje hori are handiagoa da Europa Ekialdeko herrialdeetan (Hungaria, Eslovakia, Bulgaria, Txekiar Errepublika...).
- Paperaren birziklapen-tasak produktu elektronikoak eta plastikoak baino handiagoak dira.
- Metalen prezioaren gorakadak bultzada bat eman dio metalak berreskuratzeko metodoen garapenari.
- Produktu konpainia handiek eta Estatuak berotegi efektua eragiten duten isuriak murriztearen aldeko apustua egin dute, eta horrek berekin ekarriko du berrerabilpena asko handitzea. Produktuen arabera, material birziklatuak erabiliz gero isuriak % 35 murriztu daitezke beiraren kasuan, % 70 plastikoaren kasuan edo % 90 aluminioaren kasuan.

Geografikoki, horrek esan nahi du merkatu tamainaren arabera eskualde nagusiak AEBak eta Europa direla, hondakinen kudeaketako merkatu globalaren % 29 eta % 27 baitute. EB da merkatu garrantzitsuen Hondakinen Kudeaketarako Ekipamenduetan eta, batez ere, Baliabideen berreskurapenean.

5. irudia: Hondakinen kudeaketako merkatu globalaren banaketa geografikoa eremu geografikoa eta jarduera-segmentuka (2020, mila milioi USD)



The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Etorkizunari begira, aurreikusten da bi jarduera-segmentuk bilakaera positiboagoa izango dutela, batez ere balio erantsi handiagoko hondakinen kudeaketarekin zerikusia dutenak:

- Hondakin arriskutsuen kudeaketa (kimikoak, medikoak, nuklearrak eta oil & gas sektorekoak). Adibidez, metodo ez konbentzionalen bidezko esplorazio eta operazioa (*shale gas* eta *shale oil* ustiategiak)
- Ekipo elektronikoak hondakinak (e-waste): aurreikuspenen arabera, gehien haziko den segmentuetako bat da. Merkatu hori 45 mila tonara iritsi zen 2016an, *per capita* sorkuntza-tasa oso desberdinekin: Europan 16 kiloko eta Afrikan 1,5ekoa. Merkatuko balio globala 50.000 milioi USD-koa zen 2020an, eta aurreikuspenek diote 1.438.000 milioi USD-ra iritsiko dela 2028an, % 14,3ko urteko batez besteko hazkunde-tasarekin. Adibidez, milioi bat sakelako




telefonotatik 250 kg zilar, 24 kg urre eta 9.000 kg kobre berreskuratu litezke. Kontuan izanik mundu mailako ziurgabetasuna, metal preziatuen prezio gero eta garestiagoa eta ziurgabetasun geopolitikoan murgilduta bizi diren herrialdeekiko (Errusia, Txina, Afrika) dugun menpekotasun handia, aurreikusten da metal horien birziklapen eta berreskuratze sektorea oso azkar garatuko dela AEBetan, Europan eta Japonian. 2017ko datuen arabera, berreskuratze-tasa % 35koa zen Europan eta % 17koa Amerikan.

Uraren kudeaketa integrala

Eragileek CAPEX inbertsio handiak egiten dituzte uraren kudeaketa integralean. Era berean, inbertsio handiak egiten dira inefizientziak murrizteko eta berrerabilpen-tasak handitzeko, batik bat klima aldaketaren mehatxua hurbilen duten geografietan.

Hainbat iturrik diote merkatuaren dimentsionamenduari buruzko balioespen globalak 530.000 eta 714.000 milioi USD artekoak direla. EBIren arabera, uraren kudeaketa integralaren merkatua 530.000 milioi USD-koa da, eta AEB nagusi izango litzateke merkatu globalean 168.000 milioi USD ingururekin, EB lukeelarik atzetik 124.000 milioi USD-rekin. Negozio horretan, AEB nagusi izango litzateke merkatuko segmentu guztietan.


6. irudia: Uraren kudeaketaren merkatu globalaren banaketa geografikoa eremu geografikoa eta jarduera-segmentuka (2020, mila milioi USD)



Environmental Business Intelligence (EBI)

Global Water Intelligence iturri sektorialaren arabera, zeinak gastuen tipologian zentratzen baitu bere banakapena, sektore hau 714.000 milioi USD-ra iritsi zen 2018an, % 36 CAPEX gastuak izan zirelarik eta % 64 OPEX gastuak; eta utilities direlakoak izan ziren nagusi merkatuan guztizko gastuaren % 71ko portzentajearekin (CAPEX eta OPEX gastuak kontuan harturik).

7. irudia: Uraren kudeaketaren merkatu globalaren banaketa geografikoa jardueraren segmentuka (2018, mila milioi USD)



Global

Water Intelligence

Gastu-kategoria garrantzitsuenen analisisan sakonduz, kontuan izan behar da CAPEX gastuen zati handiena (256.000 milioi USD inguru) eraikuntzako konpainia globaletan, ingeniariartzetan eta diseinuan




espezializatutako beste enpresa batzuetan zentratzen dela. Aldiz, globalizazio-maila altueneko segmentuak teknologiarekin eta proiektu horien finantzaketarekin lotutakoak dira. Bestalde, uraren sektoreko OPEX gastuetan (458.000 milioi USD 2018an) oso garrantzitsuak dira langile gastuak (% 35).

Hauek dira negozio-arlo erakargarrienak enpresentzat:

- Produktu kimikoak
- Kontsumigarriak
- Zerbitzuak
- Operazioen *outsourcing*-a.

8. irudia: Uraren kudeaketaren merkatu globalaren banaketa gastu motaren arabera (2018, mila milioi USD)



Global Water Intelligence

Etorkizunera begira, hauek dira uraren sektorean funtsezkoak izango diren faktoreak:


- Eskasia eta berotze globalak, zeintzuen ondorioz zailagoa izango baita ura eskuratzea, eta premia-koagooa kalitatezko ur-hornidura eraginkorra bermatzea.
- Uraren eskuragarritasuna etengabe handitzea garapen bidean dauden ekonomietan: UNICEFen datuen arabera, gaur egun 3.000 milioi pertsona baino gehiago dira ur edangarririk ez dutenak, eta datuak antzekoak dira uraren tratamenduari dagokionez.
- Araudi-markoa indartzea: batik bat, garapen bidean dauden eta ur kontsumo handiak dituzten herrialdeetan, zeintzuek sistema zaharkituak eta/edo eskasak baitituzte (Txina, India, Indonesia edo Mexiko). Hor dugu adibidez Txina eta uraren kutsaduraren aurkako bere ekintza-plana, zeinaren helburua baita ur industrialen tratamenduaren merkatua bultzatzea. Geografia aurreratuei dagokienez, EB da araudi-marko zorrotzena duena.
- Inbertsio-kostu handiak azpiegiturretan, bai eta egitura zaharrak herrialde aurreratueta, horrek berekin dakarrelarik eraberritze plan handiak abiarazi beharra.
- Teknologien garrantzi gero eta handiagoa hondakin uren prozesamendu eta tratamendu sektorean: hondakin urak tratatzeko teknologien berrikuntza --mintz bidezko iragazte sistemak, iragazte aldakor automatikoa (AVF), oxidazio aurreratuko prozesuak (AOP) eta UV irradiazioa-- bereziki diseinatu, ebaluatu eta inplementatu da tratamenduaren egungo zein etorkizuneko premiak asetzeko.
- Era berean, aurreikusten da orokortu egingo dela uren kudeaketa prozesuaren digitalizazioa, eraginkortasuna hobetu beharra eskatzen duen testuinguru batean.



- Kudeaketa-eredu desberdinak herrialdetik herrialdera. Kategoria nagusi hauek identifikatu dira, zeintzuen garrantzia desberdina baita merkatuaren arabera: tokiko agintariak, enpresa publikoak (gehiengoa Italian), emakida bidezko operatzaile pribatuak (gehiengoa Frantzia), kudeaketa eredu erabat pribatizatuak (gehiengoa Erresuma Batuan) edo *joint venture* publiko-pribatuak. Beste merkatu batzuetan (esaterako Espainian edo Alemanian) denetarik figurak daude, baina lidergo argi edo nagusirik gabe; hala ere, Alemaniako merkatua ingurumen-zerbitzuak berriro udalen esku uzteko prozesu orokor batean murgilduta dago.

Uren kudeaketako sistemen oinarritzko elementuetako bat beren erresilientzia ekonomikoa da, hau da, gai izatea banaketako kostuak diru-sarreraren bidez berreskuratzeko. Asia Erdigunea edo Afrika bezalako eskualdeetan, adibidez, produkzio kostuak salmenta prezioaren parekoak edo handiagoak dira. Horren ondorioz, erakunde multilateralak oso garrantzitsuak dira geografia horietan inbertsio-proiektuak finantzatu ahal izateko. 2018an bildutako datuen arabera, hauek izan ziren sektoreko eragile aktiboak: Munduko Bankua, Europako Inbertsio Bankua eta Asiako Garapen Bankua.

9. irudia: Kostuak berreskuratzeko gaitasuna eskualde geografikoka (2018, USD hornitutako metro kubiko bakoitzeko)




Global Water Intelligence

Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniartza globala

Ingurumen arloko aholkularitza globalak 80.000 milioi USD-tik gorako guztizko balio zenbatetsia erdietsi zuen 2020an. Merkatu honetan kontzentrazio geografiko handiagoa nabaritzen da, zeren Estatu Batuek eta mendebaldeko Europak guztizkoaren % 41eko eta % 33ko portzentajeak badituzte ere, euren garrantzi metatua guztizkoaren % 74koa da ingurumen-sektore osoan duten % 56aren aldean.

10. irudia: Ingurumen arloko Ingeniaritza eta Aholkularitzako Merkatu globalaren banaketa geografikoa eremu geografikoka (2020, mila milioi USD)






The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Aztertzen badugu ingeniari-tza- eta aholkularitza-merkatua eskaintzen den zerbitzu motaren arabera, 3 mota nabarmentzen dira, zeintzuek guztizkoaren % 74 ordezkatzen baitute: Hondakinen eta uraren kudeaketa (% 29), Toki kutsatuen ebaluazioak eta berroneratzeak (% 25), eta Inpaktuaren ebaluazioak (% 20).

11. irudia: Ingurumen arloko Ingeniaritza eta Aholkularitzako Merkatu globalaren banaketa, eskaintako zerbitzu motaren arabera (2020, Ingurumen arloko ingeniari-tza eta aholkularitza-ko merkatu osoarekiko portzentajea)




The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

Bezereen kategoriei erreparatuz gero, gobernuak eta agintari arautzaileak dira ingurumen arloko aholkularitza sektoreko bezero garrantzitsuenak (% 29), atzetik dituztelarik energiaren industria eta utilities sektorea (% 27), eta meatzaritza eta prozesuen industria (% 24).



12. irudia: Ingurumen arloko Ingeniaritza eta Aholkularitzako Merkatu globalaren banaketa, bezero motaren arabera (2020, Ingurumen arloko ingeniari eta aholkularitzako merkatu osoarekiko portzentajea)



The Global Environmental Market 2010-2020 (est), Environmental Business Intelligence (EBI)

1.2. Ingurumen arloko ondasun eta produktuen nazioarteko merkataritza


Eskala globala

Aztertzen badugu ingurumen sektoreko inportazio globalen garrantzia, EBlren datuek diote munta handia duela EBk (herrialde kideen arteko mugimenduak barne direla), eta atzetik doazkio Asia osoa (Japonia izan ezik) eta Estatu Batuak.


Portzentajeei dagokienez, inportazio-portzentaje txikiagoak dituzten merkatuak nabarmentzen dira (% 35 eta % 40 bitartekoak), besteak beste Latinoamerika, zeinak ingurumen arloko zerbitzu eta produktuen % 36 inportatzen baitu. Herrialde aurreratuenen artean, EB da beste herrialde eta eskualde batzuetako enpresei irekien dagoen merkaturia (EBren portzentajea % 19koa da, AEBena % 11,6koa eta Japoniarena % 7koa).



13. irudia: Ingurumen arloko produktuen inportazioen balioa eremu geografikoka (2020, mila milioi USD)




14. irudia: Ingurumen arloko produktuen inportazioen garrantzia eremu geografikoka (2020, merkatu osoarekiko portzentajea)



Aztertzen baditugu bakarrik ingurumen kategoriako produktuen inportazioak (OECD), eta maila handiko analisi batean zentratzen bagara, ikusiko dugu merkatu inportatzaile handien (Estatu Batuak eta Txina) atzetik Alemania, Mexiko, Japonia, Frantzia eta Hego Korea bezalako herrialdeak nabarmentzen direla.




15. irudia: Ingurumen arloko produktuen inportazioen balio metatua herrialdeka (2016-2020, mila milioi USD)



ITC inportazioen analisia (2016-2020, mila USD), ELGAren ingurumen kategoriak kontuan hartuz eta Taric kode erreferentzien arabera

Erreparatzen badiegu txosten honek aztergai dituen 25 herrialdeei, hauek dira produktuen inportazioen kate garrantzitsuenak: **Uraren ziklo integralaren** katea (*Waste water management and potable water treatment*), inportazio guztien % 37a hartzen duena, eta **Hondakinen kudeaketaren** katea (*Management of solid and hazardous waste and recycling systems*), zeinak inportazio guztien % 23 hartzen baitu. Bi kate horiek biltzen dute aztertutako herrialdeetako ingurumen-produktuen inportazio guztien % 60.

16. irudia: Balio-kateen irudikapena aztertutako herrialde guztietarako (% , 2020ko inportazioak)



ITC inportazioen analisia, ELGAren ingurumen kategoriak kontuan hartuz eta Taric kode erreferentzien arabera (2020, portzentajea)

Jatorria Estatuan duen nazioarteko merkataritza

Estatuko ingurumen-sektorearen nazioarteko jardueraren analisisan bereziki aztertu dira Espainiak esportatzen dituen ingurumen arloko ondasun eta produktuen ezaugarriak eta jomugak.




Kategoria honetako esportazioen bolumenari dagokionez:

- Uraren ziklo integrala nabarmentzen da, 2020an esportatutako ondasun eta produktu guztien % 60rekin.
- Atzetik doakio Hondakinen kudeaketaren katea, guztizkoaren % 23 hartzen duelarik.
- Fabrikazio ekoeraginkorraren eta ekodiseinuaren kateak esportazio guztien % 10 inguru biltzen du.
- Aire eta kutsadura, Lurzoru kutsatuak eta Ekosistemak kateek ordezkartza txikia dute, esportazio guztien % 7 baino ez baitute ordezkutzen hiruren artean.

Ingurumen arloko ondasun eta produktuen **esportazio nazionalen 2020ko jomuga garrantzitsuenei** dagokionez:

- Frantzia da bazkide komertzial nagusia, 2020an berak erregistratu baitu inportazio-bolumen handiena (1.055.000 mila euro inguru).
- Atzetik doakio Alemania eta Portugal (Europako bazkide garrantzitsuenak), eta Estatu Batuak erreferentziazko herrialde inportatzaile bilakatu dira Espainiak Europar Batasunetik kanpora esportatzen dituen ingurumen arloko ondasun eta produktuentzat.

17. irudia: Bazkide komertzial garrantzitsuenak Espainiak esportatzen dituen ingurumen arloko produktuentzat (2020, mila €)



ITC inportazioen analisisa, ELGAren ingurumen kategoriak kontuan hartuz eta Taric kode erreferentzien arabera (2020, mila euro)

Sakonago aztertuz Uraren ziklo integraleko balio-katearen (bera da garrantzitsuena esportatutako guztizko balioa kontuan hartuta) barruko esportazioak, eszenatoki globalaren joera berbera ikusten da, Frantzia eta Alemania direlarik kate honetako produktu inportatzaile nagusiak, eta Estatu Batuak, berriz, bazkide garrantzitsuena.



1. taula: Espainiako esportazioen jomuga nagusia Uraren ziklo integralaren katean (2020)

Herrialde inportatzaile nagusia	Esportatutako balioa (mila €)
Frantzia	720.898
Alemania	487.869
AEBak	137.980
Portugal	133.994
Egipto	67.841

ITC (2020, mila euro)

Hondakinen kudeaketako katean (bigarren kate garrantzitsuena) ere antzeko patroia ikusten da Espainiaren esportazioetan. Kasu honetan Portugal indarturik ageri da, bigarren inportatzaile handiena delarik, eta Estatu Batuen pisu komertziala apur bat txikiagoa da Uraren ziklo integralaren katean duen posizioarekin alderatuta.



2. taula: Espainiako esportazioen jomuga nagusia Hondakinen kudeaketako katearen barruan (2020)

Herrialde inportatzaile nagusia	Esportatutako balioa (mila €)
Frantzia	250.210
Portugal	128.623
Alemania	102.827
AEBak	97.410
Maroko	31.698

ITC (2020, mila euro)

1.3. Ingurumen arloko merkatu globalaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak (2027)


2021eko ekitaldiaren itxieran eguneratutako azken datuen arabera, ingurumen arloko merkatuaren bilakaerari buruzko aurreikuspen globalek erakusten dute urteko % 5,3ko hazkundea erregistratuko dela 2027ra arte, eta urte horretako zifra globala 2.075 bilioi dolarrekoa izango dela.

Segmentuka, hauek izango lirateke hazkunde handiena izango dutenak:

- Hondakin arriskutsuen kudeaketa: urteko +% 14 epealdi horretan
- Ingeniaritza, aholkularitza eta berroneratze zerbitzuak: % 7-8 inguruko hazkundea
- Atmosferako kutsadura kontrolatzeko sistemak: urteko +% 7
- Uren tratamendua: % 6 inguru, bai azpiegitura berrietan, bai lehendik eraikita dauden azpiegituren erresilientzia hobetzeko.

Geografikoki, aurreikusten da eskualdekako banaketa ez dela gehiegi aldatuko, izan ere, badaude azpiegiturretan gehiago inbertituko duten eskualdeak (Asia, Latinoamerika), baina beste batzuek inbertsioak egin beharko dituzte erresilientzia hobetzeko eta ingurumen arloko helburu anbiziotsuak iristeko (EB, Japonia, AEBak eta Kanada).

18. irudia: Ingurumen-merkatu globalaren bilakaerari buruzko aurreikuspena (2022-2027 artean, mila milioi USD)



BTIren analisia, The Global Environmental Market 2010-2020 (est) eta Environmental Business Intelligence (EBI) erakundeen datuen eta erreferentziazko beste txosten batzuen arabera



2. Aukera-merkatuen analisia

Txosten honetan aztertzen diren 25 merkatuak aukera-merkatutzat jotzen dira ingurumen arloko jarduerarekin eta haren balio-kate espezifikoekin (Uraren ziklo integrala, Airearen kutsadura, Hondakinen kudeaketa, Lurzoru kutsatuak, Fabrikazio ekoeraginkorra eta ekodiseinua eta Ekosistemak) lotutako euskal enpresen ondasunak edo/eta zerbitzuak nazioartekotzeko.

Txosten honetan aztertu diren 25 herrialdeak aukeratzeko aurretiazko azterketa bat egin da, oinarritzat hartuta faktore makroekonomiko kuantitatiboak eta ingurumen arloko jarduna, zeinari esker posible izan baita elkarrekin alderatzea garrantziaren arabera aukeratutako mundu osoko 25 herrialderen potentziala.

2.1 Analisi konparatiboa

Jarraian hainbat ildo aipatzen dira, aztertutako 25 herrialdeetako ingurumen arloko merkatuaren ezaugarriak erakusten dituztenak, eta, ikuspuntu konparatibo batetik abiatuta, aukera ematen dutenak Euskadiko ingurumen sektorerako aukera garrantzitsuak eskaintzen dituzten merkatuak identifikatzeko.

2.1.1 Ingurumen arloko merkatuaren dimentsionamendua eta balioa

Ingurumen-sektorearen balio globalari dagokionez, Estatu Batuak nagusi dira merkatuan, 419 mila milioi dolar baino gehiagorekin (2020); hala, hirukoiztu egiten du munduko ingurumen arloko bigarren merkatu handienaren balioa, hots, Japoniarena, zeinak 136 mila milioi euroko zifra balioetsia izan baitu epealdi berean.

Aztertutako herrialdeen artetik eta 2020ko balio erlatiboari dagokienez, ondoriozta liteke mundu mailan hauek izan direla protagonista garrantzitsuenak:

Ipar Amerika:

- *Estatu Batuak* dira mundu mailako lehen herrialdea merkatuko balio globalean eta inportazioetan.
- *Kanadak* protagonismo apalagoa izan du, baina halere mundu mailako 7. postuan dago merkatuko balioaren adierazlean.

Asia:

- Asia-Pazifikoko eskualdean *Japonia* nabarmentzen da, mundu mailako 2. merkatu handiena delarik.
- Atzetik doakio *Txina*, zeina 4. postuan baitago mundu mailako sailkapenean.
- Balioari erreparaturaz gero *Hego Korea* nahiko urrun dago, baina eskualdeko eragile garrantzitsuenetako bat da, 12. postuan kokatzen delarik mundu mailako sailkapenean (10. postuan dago txosten honetan aztertutako 25 herrialdeen artean).

Europa:


- *Alemania* da Europako ingurumen arloko merkatu handiena, eta hirugarrena mundu mailan.
- *Erresuma Batua* eta *Frantzia* ere nabarmentzen dira, bai European eta baita mundu mailan ere, 5. eta 6. postuetan baitaude sailkapen globalean.
- *Italia* ere ingurumen arloko merkatu garrantzitsuenetako bat da European, eta 9. postuan kokatzen da mundu mailako sailkapenean (8. postuan dago txosten honetan aztertutako 25 herrialdeen artean).



Azkenik, termino globaletan Latinoamerika oraindik ez da nabarmentzen bere ingurumen arloko merkatuaren balioagatik, baina merezi du **Brasil** aipatzeak, 10. postuan baitago mundu mailako sailkapenean.

30 mila milioi dolarretik gorako zifrekin, bera da LATAM eskualdeko ingurumen arloko merkatuko buru. Urrunetik bada ere, atzetik doazkio Mexiko (19 mila milioi USD), Txile (7 mila milioi USD) eta Kolonbia (5 mila milioi USD).

19. irudia: Aztertutako herrialdeetako ingurumen arloko merkatuen balioa (2020, mila milioi USD)



Environmental business international 2020

Ingurumen arloko merkatu globalaren barruan, arreta berezia jarri zaio **Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniariatza zerbitzuen** kategoriari. Nahiz eta segmentu horrek ingurumen-merkatu globalaren % 6 baino ez zuen ordezkatu 2020an, Euskadiko enpresen ezaugarriak eta gaitasunak kontuan hartuta, aukera-kategoria garrantzitsutzat jotzen da euskal ingurumen-sektorearentzat.

Txosten honetan aztertu diren 25 herrialdeei erreparatuz gero, aukera-segmentu espezifiko honen merkatuko balioak ingurumen-merkatu globalaren antzeko patroia jarraitzen du, baina Europa postu batzuk gorago dago kategoria honetako sailkapenean.

Ipar Amerika:

- *Estatu Batuek* mundu mailako lider izaten jarraitzen dute Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniariatza kategorian, zeinak bere ingurumen-merkatuko balio globalaren % 7,65 hartzen baitu.
- *Kanadak* ere bere protagonismoari eutsi dio segmentu honetan, 6. postuan kokatu delarik.

Europa:

- *Alemaniak* gero eta protagonismo handiagoa du mundu mailan Aholkularitza eta Ingeniaritza segmentuan, eta balioari dagokionez, 2. postuan kokatu da mundu mailako sailkapenean. Zerbitzuen kategoria honek ingurumen-merkatu globaleko balioaren ia % 7 ordezkatzeko du Alemanian.
- *Erresuma Batuek* eta *Frantziak* ere hobetu egin dute segmentu honetan zuten posizioa, Txina edo Japoniak baino balio-zifra altuagoak lortuz. Hala, 3. eta 4. postuak erdietsi dituzte mundu mailako sailkapenean, kontuan izanik ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniariatza merkatuak gurtizkoaren % 7 inguru ordezkatzeko duela kasu bietan.




- *Italia*: 7. postuan dago, eta segmentu honek merkatuko balio globalaren % 6,6 inguru hartzen du.

Asia:

- *Japoniak* galdu egin du segmentu honetan zuen pisua, eta balio globalari dagokionez, 2. postutik 10.eraingo jaitsi da ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniari-merkatuan (9. postuan dago aztertutako 25 herrialdeen artean). Segmentu honek bere ingurumen-merkatuko guztizko balioaren % 1 besterik ez du ordezkatzeko, beraz, aurreikusten da epe labur eta ertainean hazkunde handia izango duela, ekonomia aurreratu homologagarrien parera iritsiko delarik.
- *Txina* mundu mailako 5. postuan dago kategoria honetan, eta aldiz, 4. postuan ingurumen-merkatuko balio globalean. Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniari-merkatuak guztizko balioaren % 3 besterik ez du hartzen Txinako merkatuan.

20. irudia: Ingurumen arloko aholkularitza eta ingeniari-merkatuaren balioa aztertutako herrialdeetan (2020, mila milioi)



Environmental business international 2020

2.1.2 Merkatu bakoitzeko balio-kate garrantzitsuenak


Kalkulatu da zein den sektorea osatzen duten balio-kate bakoitzeko ingurumen-ondasun eta -produktuen batez besteko inportazio-bolumena txosten honetan aztergai diren herrialdeentzat (25)¹.

Uraren ziklo integralaren katea da inportazioetan garrantzi handiena daukan katea, eta ondoren datoz ingurumena monitorizatu eta analizatzeko ekipoen katea, hondakinen kudeaketarako katea eta aire eta kutsadura arloetako katea.

¹ Balio-kate bakoitzaren barruko "Ingurumen" kategoriako kodeak dituzten produktu nagusiekin (guztizko fakturazioaren % 50 baino gehiago ordezkatzeko dutenak) 2016-2020 artean eginiko inportazioen batez bestekoa da, beti ere kontuan hartu direlarik ELGak ingurumen arloko produktutzat sailkatu dituen Taric produktu-kodeak.



21. irudia: Balio-kateen garrantzia ingurumen arloko produktuen inportazioen arabera (aztertutako 25 herrialdeak)



ITC, 2016-2020 arteko inportazioen batez bestekoa (%)

Segidan datoz ingurumen sektoreko balio-kate bakoitzeko inportazio-merkatu garrantzitsuenen xehetasunak.

▪ Uraren ziklo integrala

Oro har, Uraren ziklo integralaren katea da protagonismo gehien duena aztertutako merkatu guztietan; batez beste, ingurumen kategoriako ondasun eta produktuen inportazio guztien % 40 inguru hartzen du. Halere, kate honek garrantzi berezia du aztertutako zenbait herrialdetan:

- *Errumania*: Errumaniako ingurumen-produktuen inportazio guztien % 80 inguru kate honetan kontzentratzen dira.
- *Danimarka*: kate honek % 49ko pisua du guztizko inportazioen gainean.
- *Estatu Batuak* eta *Kanada*: kate honek % 47ko pisua du Estatu Batuetan eta % 45ekoa Kanadan.
- *Txile* eta *Kolonia*: herrialde horiek besteen gainetik nabarmentzen dira LATAM eskualdean, % 46 eta % 44ko pisua dutelarik guztizko inportazioen gainean.

Gainerako herrialdeek antzeko pisua dute Uraren ziklo integraleko balio-katean, nahiz eta Europan zertxobait nabarmentzen diren Frantzia, Txekiar Errepublika, Erresuma Batua eta Portugal (balio-kate horrek % 44-45eko pisua du inportazio guztiekiko).

▪ Aire eta kutsadura

Aire eta kutsadura hirugarren balio-kate garrantzitsuenak da txosten honetan aztertu diren herrialdeetan. % 17ko batez besteko pisua duelarik inportazio guztiekiko, herrialde hauek nabarmentzen dira batez besteko hori gainditzen duten inportazio-zifrak dituztelako (horrek esan nahi du menpekotasun handiagoa izan dezaketela kate horretako produktuen hornidurarako):



- *Alemania*: Airea eta kutsadura kateko inportazio-zifra altuena du, kate honek ordezkutzen duelarik ingurumen arloko bere inportazio guztien % 33.
- *Italia*: merkatu hau ere protagonista da, kate honek ordezkutzen baitu ingurumen arloko bere inportazio guztien % 32.
- *Hungaria eta Herbehereak*: Europan bi herrialde horiek nabarmentzen dira Airea eta kutsadura kateko inportazioekiko duten menpekotasunagatik, guztizkoarekiko % 31ko eta % 25eko zifrak dituztelarik.
- *Japonia*: kate honetan nabarmentzen den eskualde ez europar bakarra da; eta kate honek ingurumen arloko bere inportazio guztien % 23 ordezkutzen du.

▪ **Hondakinen kudeaketa**

Hondakinen kudeaketa bereziki nabarmentzen da aztertutako herrialdeen artean, eta ingurumen-inportazio guztien % 20 biltzen du batez beste. Aipagarriak dira:

- *Japonia*: menpekotasun esanguratsua du kategoria honetako inportazioekiko, bere ingurumen-inportazioen % 48 inguru ordezkutzen baitu aztertutako ingurumen-kategorian.
- Europako merkatuan: kate honetan bereziki nabarmentzen dira *Polonia* (% 39), *Portugal* eta *Suitza* (% 24) eta *Hungaria* (% 23).
- LATAM eskualdean: besteen gainera nabarmentzen da *Mexiko*, non kate honek % 30eko pisua baitu, eta atzetik doazkio *Argentina* eta *Kolonia*, % 21 eta % 19ko portzentajeekin.

▪ **Ingurumena monitorizatu eta aztertzeko ekipoak (fabrikazioa eta ekodiseinua)**

Produktuen inportaziorako ingurumen-kategoria (ELGA), ingurumena monitorizatu eta aztertzeko ekipoak dagokiena, fabrikazio ekoeraginkorraren eta ekoindustriaren katearekin lotu da azterketa honetan, elkarrekotasun bat dagoelako kategoria horren barruan deskribatutako produktu-moten artean.

Hortaz, Ingurumena monitorizatu eta aztertzeko ekipoen kategoriari dagokionez, aipatu behar da garrantzi handia hartu duela aztertutako herrialde guztietan, bere batez besteko pisua % 22koa baita guztizko ingurumen-inportazioen gainean. Bereiziki garrantzitsua izan da zenbait merkatutan:

- *Asia*: *Txinaren* kasuan, ekipoen kategoria hau ingurumen-inportazio guztien % 32 ingurura iritsi da, argi erakutsiz erraldoi asiarrak menpekotasun handia duela produktu-kategoria honetan. *Hego Koreak* ere ageriko premiak ditu kategoria honetan, % 29ko pisua baitu ingurumen-inportazio guztien gainean.
- *LATAM*: *Mexikok* portzentaje altua du kategoria honetan (% 30); eta atzetik doazkio *Txile* eta *Kolonia*, % 23 eta % 22ko portzentajeekin, agerian utziz zeinen garrantzitsua den produktu-kategoria honen inportazioa merkatu horietan.
- *Europa*: Kate honen pisua nabarmena da *Alemanian*, *Polonian* zein *Herbehereetan*, zeintzuetan % 27ko pisua baitauka ingurumen-inportazio guztiekiko. *Erresuma Batua* eta *Frantzia* ere nabarmentzen dira, % 25eko portzentajearekin kasu bietan, eta orobat *Italia*, % 23ekin.

▪ **Ekosistemak**

Bere portzentajezko pisua oso txikia da aztertutako herrialde guztietan, ez baita iristen guztizkoaren % 0,5era. Aztertutako herrialdeetatik, portzentajea apur bat handiagoa (% 1) da Txilen, Danimarkan, Norvegian, Hego Korean eta Brasilen.



▪ Lurzoru kutsatuak

Lurzoru eta ur kutsatuei dagokien kateak eta kategoria honetan sailkatzen diren produktu inportatuek (ELGA) ere oso pisu txikia dute txosten honetan aztertu diren 25 herrialdeetan. Kate honen batez bestekoa apenas iristen da ingurumen-inportazioen % 1era aztertutako merkatu guztietan. Nahiz eta kopuruak txikiak diren oro har, badaude batez bestekoaren gainetik kokatzen diren zenbait herrialde:

- LATAM eskualdean: *Txile eta Brasilek* % 2ko portzentajea dute ingurumen-inportazio guztiekiko.
- Europako merkatuan: *Danimarka, Norvegia eta Poloniak* % 2ko portzentajea dute guztizkoarekiko.



2.1.3 Harreman komertzialak eta merkatura sartzeko oztopoak

Harreman komertzialei dagokienez, aztertu da zein merkatutatik inportatzen dituen herrialde bakoitzak ingurumen kategoriako produktuak eta ondasunak. Jakiteko nolako eragina duten herrialde baten bazkide komertzialek euskal enpresen herrialde horretako negozio-aukeretan, lehentasuna eman zaie ingurumen-produktuak inportatzeko EB, AEBak edo Japonia lehentasunezko bazkide komertzialtzat dituzten herrialdeei. Kasu honetan, ulertzen da produktuarentzat eskatzen den kalitate-estandarra handiagoa izango dela eta, aldi berean, handiagoak izango direla merkatuko lehia eta produktua merkatuan sartzeko eskakizunak. Aldiz, ez dira hain interesgarritzat jo Europako ezein herrialderekin edo Estatu Batuekin harreman komertzialik ez duten herrialdeak, ulertzen delako herrialde horietan baxuegia izango dela ingurumen arloko produktuen kategorian eskatzen den kalitate-estandarra.

Aipagarriak dira, zentzu horretan, euren ingurumen-produktu bolumenaren %50 baino gehiago eskualdeko beste bazkide europar batzuetatik inportatzen duten Europako herrialdeak: Herbehereak, Alemania, Frantzia, Italia, Erresuma Batua edo Portugal (Espainia Portugalera merkatuarentzat bakarrik da ingurumen-produktuen hornitzaile nagusietako bat).

Merkatura sartzeko **muga-zergen hesiei eta merkataritza-zailtasunei** dagokienez, aztertutako herrialde guztietatik *Brasil*, *Txina* eta *Argentina* nabarmentzen dira, analisi-kategoria horretako produktuak Espainiatik inportatzeak dakartzan zailtasun gehigarriengatik.

Merkatu horietara sartzea "erronka" bat da era guztietako ondasun eta produktuentzat, eta ez bakarrik ingurumen arlokoentzat, kontuan hartu behar baitira muga-zergen kargak eta muga-zergekin zerikusirik ez duten bestelako oztopoak, hala nola zailtasun fiskalak, jabetza eta patenteak babesteko zailtasunak, eta kontratazio publikoa lortzeko arazoak.

2.1.4 Ingurumen arloko jarduna

Herrialde bakoitzak ingurumen arloan duen jarduna baloratzeko, aztergai izan dira Environmental Performance Index-ekin (EPI) zerikusia duten hainbat adierazle, zehaztuta daudenak herrialde bakoitzaren fitxan. Sailkapen horrek (herrialde baten ingurumen jardunaren erreferentzia global onena) ingurumen arloko kalitateari eta segurtasunari buruzko ikuspegi bat ematen du, oinarritzat hartuta 11 kategoriatan sailkatutako 32 jardun-adierazle.

Analisi honetan lehentasuna eman zaie EPI ingurumen-adierazleetan ingurumen arloko jardun "ertain" eta "ertain-baxuan" dauden herrialdeei. Izan ere, ulertzen da euskal enpresen jomuga-publikoa direla ingurumen-estandar zorrotzagoetarako bidean dauden merkatuak edo arlo horretan premia larriak dituztenak, funtsean horiek baitira ezagutza eta teknologia inportatzen dutenak jardun eta estandar altuagoak dituzten herrialdeetatik.

Irizpide hori aplikatuz garrantzia galtzen dute Europako herrialde gehienek, batik bat herrialde eskandinaviarrek, zeintzuek maila eta estandar paregabeak baitituzte arlo "berdean". Gauza bera gertatzen da EPI adierazleetan jardun bereziki baxua duten herrialdeekin, hala nola Argentina, Txina, Mexiko, Brasil, Polonia edo Errumaniarekin.

Bereziki nabarmentzen dira ingurumen-jardunean estandar ertain-baxua duten herrialdeak, balizko jomuga-merkatu izan baitaitezke euren ingurumen premiengatik: *Txile*, *Kolonbia*, *Italia*, *Erresuma Batua* edo *Estatu Batuak*.



2.1.5 Ingurumen-araudia betetzea

Araudiei dagokienez, aztertu da zenbateraino betetzen den herrialde bakoitzeko legea, hau da, aztergai izan dira ingurumen arloko araudiak eta egiazki betetzen diren ala ez. Araudi mailako analisi bat eginik eta herrialde bakoitzak GJHen (ingurumenarekin zerikusia dutenak) inguruan duen betepen-maila aztertutik, ikusi da merkatu hauek nabarmentzen direla euren jardun ahulagatik:

- *Txina, Mexiko, Argentina eta Brasil*

Bestalde, bereziki aipatzekoak dira herrialde hauek, **aukerako araudi-esparrua** dutelako ingurumen-sektoreko euskal enpresentzat:

- **Txile:** “REP - Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren” legea (2021)

Ekoizlearen Erantzukizun Hedatuaren Lege berriaren arabera, lehentasunezkoztat jotzen diren produktuen ekoizle edo inportatzaileen ardura izango da produktuak biltzea, eraginkortasunez aprobetxatzen direla bermatzeko. Horrek agerian uzten du ezinbestekoa dela konponbideak txertatzea birziklapena eta prozesu zirkularrak sustatzeko.

Lehentasunezko produktuak dira gailu elektriko eta elektronikoak, pilak, ontzi eta bilgarriak, egunkari eta aldizkariak, olio eta lubrifikagarriak, pneumatikoak eta bateriak.

Araudi berri horrekin bat etorritik, eta Txilek bere hondakinen birziklapen eta aprobetxamendu prozesuak hobetzeko egin duen apustu sendoari jarraiki, hainbat aukera identifikatu dira euskal enpresentzat. Batez ere, birziklapenari eta, oro har, ekonomia zirkularrari aplikatu dakizkiokeen konponbide berritzaileak eskaini ditzaketen enpresentzat.

- **Italia:** 116/2020 Dekretua, Hondakinen Kudeaketa sektorean aplikatzekoa dena

2020an aldarrikatutako dekretu horrek goitik behera berregituratu zuen Italiako hondakinen kudeaketari buruzko araudi-esparrua. Besteak beste, eragin zuzena du Ingurumen Kodean, sekulako iraultza eragin du hondakinen kudeaketaren sektorean, eta ondorioz, eragina izan du orobat sektore osoko operatzaile eta zerbitzu-emaitzen artean.

Dekretuak hainbat neurri biltzen ditu, hondakinetatik abiatuta baliabideak balorizatzeko Europar Batasunak (EB) ezarritako irizpideen arabera. Hona hemen Italiak lortu nahi dituen helburuetako batzuk: 2025erako hiriko hondakinen % 55 birziklatzea, eta 2030erako % 70 inguruko balioak erdiestea soilik ontzien birziklapenean. Isuriei dagokienez, 2035ean % 10a izango da gehieneko muga, eta 2023tik aurrera derrigorrezkoa izango da hondakin organikoen bilketa selektiboa egitea.

Aldaketa horrek eskakizun eta erronka berriak sortuko ditu Italiako Hondakinen kudeaketa-katean, eta aldi berean, aukera berriak irekiko ditu balio-kate horretan aplikatzeko moduko teknologia eta konponbideak dituzten euskal enpresentzat.

2.1.6 Erakargarritasuna euskal enpresarentzat

Euskadiko ingurumen-sektoreko enpresekin garatutako parte-hartze prozesuan eta bakarka eginiko 30etik gora elkarrizketatan jasotako datuen bidez, hainbat **gogoeta komun** bildu dira:

- **Europa:** Europako merkatuan produktu bat saltzea da sektore honetako enpresa txiki eta ertainen erronka nagusietako bat. Bestalde, *Frantzia* eta *Portugal* dira lehen esportatzaileentzako merkatu erakargarrienak. Eta merkatuko bolumenari dagokionez, Frantziako merkatuaz gain, enpresek *Alemania* eta *Italia* identifikatu dituzte, eta *Erresuma Batua* ere bai, *Brexita* gorabehera.



- **Ipar Amerika:** Ipar Amerikako merkatua potentzial handiko merkatutzat jotzen da, baina gauzak asko aldatzen dira estatutik estatura, eta horrek azterketa xehe bat eskatzen du, ez soilik globalki, baizik eta orobat estatu bakoitzari buruz, eremu erakargarrienak identifikatzeko.
- **LATAM:** Ingurumen sektoreko enpresek aukera-merkatu garrantzitsuenetako bat bezala identifikatu dute LatAm eskualdea. Azkenaldian negozio-aukera handiak sortu dira sektoreko euskal enpresentzat, hainbat arrazoi direla medio: eskualde hori duela gutxi hasi da politika berdeak aplikatzen, kontzientiazio soziala gero eta handiagoa da, eta teknologia zein bitartekoak inportatu beharra dauka proiektu eta ekimenak abian jartzeko. Hasi ekipo fabrikatzaileetatik eta ingurumen-zerbitzu aurreratuen eskaintzaileetara, denek aipatu dute espezifikoki *Kolonia* sektorerako aukera-merkatu gisa. Halaber, aipagarria da *Txile* bere merkatuaren tamainagatik, nahiz eta bertako lehiakortasun egoera konplexuagoa den, bere enpresa-ehuna handiagoa delako, eta mundu mailan erreferenteak diren ingurumen arloko enpresen sukurtsalak ere badituelako.
- **Asia:** Asiako merkatuaren kasuan, enpresek ez dute iritzi bateraturik eskualde hartan identifikatutako aukeren inguruan. *Japonia* edo *Hego Korea* lider teknologiko gisa identifikatu dira, eta euren barruan ingurumen arloko gobernu-plan eta politika zorrotzetatik eratorritako aukera-nitxo espezifikoak ageri dira.
- **Munduko gainerako herrialdeak:** Salbuespenak salbuespen (bai enpresei eta bai herrialdeei erreparatuta), ez da lehentasunezko merkatuak identifikatu epe labur eta ertainean.

Sektoreko euskal enpresen bilakaera baldintzatuko duen beste elementu bat da kasuan kasuko merkatuan dagoen **tokiko edo nazioarteko lehia**. Zentzu horretan, nahiz eta lehiakortasunaren intentsitateak eragin oso desberdinak dituen enpresa bakoitzak xedetzat duen merkatu-segmentuaren eta enpresaren ezaugarri eta gaitasunen arabera, sektoreko hainbat enpresa bat datoz esatean Latinoamerika dela Euskadiko sektorea garatzeko baldintza erakargarri eta abantailatsuenak eskaintzen dituen merkatua. Batetik, merkatu heldugabea delako eta, bestetik, izen handiko enpresak daudelako hainbat kate garrantzitsutan, hala nola Uraren edo Hondakinen Kudeaketan.



2.2 Analisi konparatiboaren ondorioak

Jarraian laburbilduta daude txostenak aztergai dituen 25 herrialdeen faktore garrantzitsuenak eta esparru konparatiboa.

Lehentasunezko merkatuen sailkapen hau egin da, kontuan hartuta enpresen parte-hartze prozesuetan lortutako faktore kuantitatiboen haztaperen objektiboa eta irizpide kualitatiboen haztapena.

1. ilustrazioa: Lehenespenen matrize konparatiboa

	Valor del mercado medioambiental	Relaciones comerciales	Barreras comerciales	Desempeño medioambiental	Cumplimiento normativa medioambiental	Atractivo para la empresa vasca
EEUU						
Alemania						
Francia						
Colombia						
Reino Unido						
Chile						
Japón						
Italia						
Países bajos						
Portugal						
República Checa						
Canadá						
China						
Bélgica						
Suiza						
Polonia						
Dinamarca						
Suecia						
Noruega						
Corea del Sur						
México						
Hungría						
Rumanía						
Argentina						
Brasil						

Sailkapen objektiboan, hauek dira **lehentasunezko merkatuak**:

- o Estatu Batuak,
- o Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia (Europa).
- o Kolonbia eta Txile (LATAM)
- o Japonia (Asia)


Estatu Batuak, munduko ingurumen-merkatu handiena da, eta 1. postuan dago bai merkatuko balioaren sailkapenean eta baita ere produktuen inportazio-bolumenarenean. Ingurumen arloko jardun apala du oraindik, eta ondasun nahiz produktuak inportatzeko premia duenez, potentzial ukaezina eskaintzen du aukerak garatzeko. Kasu honetan, ezinbestekoa izango da estatu bakoitzaren analisi xehe bat egitea, potentzial handiena eskaintzen duten estatuak identifikatzeko.



Europar, merkatuko balioaren zifra kontuan hartuta, fokua jarri da merkatu handiena duten herrialdeetan, hots, *Alemania, Erresuma Batua, Frantzia eta Italian*, zeintzuen ingurumen-merkatuek balio handia baitute. Zifra horiek eta aztertutako gainerako faktoreek argi erakusten dute sektorea dinamikoa dela, eta ingurumen arloan diharduten euskal enpresek panorama abantailatsua dutela negozio-aukerak identifikatu eta garatzeko.

Gainera, esparru geografiko hurbilagoan mugitzeak erraztasun komertzialak eskaintzen ditu: seguruagoa da eta aukera gehiago sortzen dira nazioarteko esperientzia urria edo inbertsiorako baliabide mugatuak dituzten euskal enpresentzat.


22. irudia: Europako ingurumen arloko merkatu nagusiak (mila milioi USD, 2016-2020)



Environmental business international 2020

Latinoamerikan bereziki azpimarratzekoak dira **Txile** eta **Kolonbiako** merkatuak ingurumen arloan dituzten gabezia eta premiengatik, eta orobat, merkatura sartzeko oztopo gutxiago jartzen dituztelako eskualdeko beste merkatu batzuekin alderatuta. Baina, batez ere, prozesu parte-hartzailean elkarriketatutako sektoreko enpresek lehentasunezko merkatu interesgarri gisa identifikatu dituztelako. Ingurumen arloko azpiegiturak garatzeko potentzial handia identifikatu da bi kasuetan, hala epe laburrean nola ertainean.

Azkenik, **Japonia** merkatu erakargarria da bere inportazioen bolumenagatik, eta baita ere euskal enpresentzako aukera-merkatu egonkorra izateagatik, bide emango baitie Asiako merkatuan hazteko, halako moldez non gune aproposa bihurtu baitaiteke atzerriko presentzia dibertsifikatzeko.



Herrialdeen ikuspegi xehea



3. Herrialdeen ikuspegi xehea

Atal honetan jasota daude adierazle kuantitatiboen arabera aztertutako merkatuen ezaugarriak, bai eta txostenean bildutako 25 herrialdeen merkatuko informazio konparagarria. Txosten honetan landu diren 25 herrialdeak faktore makroekonomikoetan (politikoak, ekonomikoak eta ingurumen-sektoreko jardunari dagozkion faktore espezifikoak) oinarrituta eginiko aurre-aukeraketa batean hautatu ziren. Hona hemen herrialdeak interes handienekotik txikienera ordenatzen dituen sailkapena:

3. taula: Aztertutako herrialdeen sailkapena

Erref.	Aztertutako merkatuak
1.	Estatu Batuak
2.	Alemania
3.	Frantzia
4.	Kolonbia
5.	Erresuma Batua
6.	Txile
7.	Portugal
8.	Japonia
9.	Italia
10.	Herbehereak
11.	Txekiar Errepublika
12.	Kanada
13.	Txina
14.	Suitza
15.	Suedia
16.	Danimarka
17.	Norvegia
18.	Belgika
19.	Mexiko
20.	Polonia
21.	Hego Korea
22.	Hungaria
23.	Errumania
24.	Argentina
25.	Brasil

1. ESTATU BATUAK

- *Estatu Batuek lidergo ukaezina dute mundu mailako ingurumen-merkatuan, bere merkatu-balio estimatuak aise gainditzen duelarik Japonia eta Alemaniakoa. Beste herrialde batzuek baino ingurumen-industria aurreratu eta sofistikatuagoa dute, eta gainera, Estatu Batuen markak eta produktuek izen handia dute merkatu globaletan.*
- *Txina, Mexiko eta Alemania dira bere bazkide komertzial garrantzitsuenak, eta atzetik doazkie Kanada, Japonia eta Singapur. Balio-kate hauetarako egiten dituzte inportazio gehien: Hondakin uren kudeaketa eta tratamendua, Ingurumenaren zaintza, analisi eta*



1. postua
Ingurumen-
merkatuko BALIO
GLOBALA



1. postua
Ingurumen-kategoriako
PRODUKTUEN INPORTAZIOA




**Ingurumen-kategoriako 3
BAZKIDE KOMERTZIAL
GARRANTZITSUENAK**
1. Txina
2. Mexiko
3. Alemania

Estatu Batuek **nagusi izaten jarraitzen dute mundu mailako ingurumen-merkatuan**, eta inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko katea** da garrantzitsuen, guztizkoaren % 45 ordezkatzen duelarik.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
419,1 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
32,1 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Estatu Batuek erronka handiak gainditu behar dituzte GJHeK ingurumen arloan eta ingurumenarekin lotutako beste esparru batzuetan ezarri dituzten helmugetara iristeko. Halere, gobernantzaren kalitatearen adierazleek erakusten dute araudi-esparrua eta esparru politikoa aproposak direla neurriak hartzeko. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailarekin lotutako adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Ipar Amerikaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#) indizea.



Marco normativo y político




Desempeño medioambiental





Txina, Mexiko eta Alemania dira AEBen ingurumen-kategoriako produktuen hornitzaile garrantzitsuenak, eta AEBek **hondakin solidoen kudeaketako** balio-katerako inportatzen dute produktu gehien Europatik (zehazki, Alemaniatik).



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

Estatu Batuak munduko lehen ekonomia dira eta merkatu oso malguak ditu, horrela beraz, aukera handiak eskaintzen ditu euskal enprezentzat ingurumen-sektorean. Dena den, ezin da ahaztu zaila dela merkatu hartara sartzea, bai bere tamaina konplexuagatik eta baita ere lehia handiagatik.



2. ALEMANIA

- *Alemania da Europako ingurumen-merkatuko liderra, 105 mila milioi dolarretik gorako sektorearekin, eta 3. postuan dago mundu mailako sailkapenean*. Estatu Batuak eta Japonia bakarrik ditu aurretik, zeintzuk nagusi baitira munduko ingurumenaren panoraman euren merkatuen balioagatik.*
- *Ingurumen-kategoriako produktuen inportazioen batez besteko zifrak erakusten du protagonismo handia duela sektorean, izan ere, txosten honetan aztertu diren herrialdeen artean Alemania hirugarrena da inportazio-bolumenari dagokionez.*
- *Ingurumen arloko jardunari gagozkiola, Europako herrialde nagusietako bat da ingurumenaren osasun eta babes estandarretan, baina auzoko eskualde eskandinaviarren atzetik dago oraindik.*
- *Txekiar Errepublika eta Suitza dira bere bazkide europar garrantzitsuenak, eta mundu mailan, berriz, AEBak eta Txina.*
- *Hondakinen kudeaketarekin eta horien berreskurapen lantegiekin lotutako politikak dira Alemaniak ingurumen arloan abiarazi dituen ekimen ugarietako batzuk, eta orobat martxan jarri ditu hondakin uren tratamendurako lantegiak modernizatze hainbat proiektu.*



3. postua

Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



3. postua

Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA



Ingurumen-kategoriako 3


BAZKIDE KOMERTZIAL GARRANTZITSUENAK

1. Txina
2. AEBak
3. Txekiar Errepublika

Alemaniako ingurumen-sektorea Europako handiena eta munduko hirugarrena da bere balioagatik. Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuena, guztizkoaren % 38 ordezkatzen duelarik.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
105,95 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
7 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA, ITC

Alemania bereziki nabarmentzen da bere **gobernantzaren kalitateagatik**, Top 20 multzoan sartu delarik aztertutako 4 kategoriatarik 3tan. **GJHen** betepen-mailari dagokionez, aldiz, **erronka handiak** ditu oraindik, batik bat 6., 14. eta 15. helburuetan. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailarekin lotutako adierazleei buruz, kontsultatu [*Sustainable development report*](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Alemaniaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [*EPI Index*](#) indizea.



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS y tendencia de cumplimiento



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento normativo	17
Eficacia gubernamental	24
Calidad normativa	15
Índice de percepción de la corrupción	9



Desempeño medioambiental


Salud ambiental	15
Saneamiento y agua potable	8
Gestión de residuos	8
Tratamiento aguas residuales	8
Saneamiento inseguro	1
Exposición a metales pesados	15

Txina, AEBak, Txekiar Errepublika eta Suitza dira ingurumen-kategoriako produktu hornitzaile nagusiak Alemaniarentzat, eta airearen kutsadurako balio-kateak pisu nabarmena du bazkide komertzial garrantzitsuenen artean.



Principales socios comerciales

Volumen de importaciones (miles de USD, detalle por cadena y país de origen)



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database



Retos y barreras comerciales

Gravamen arancelario
0%

Barreras no arancelarias

- No constan barreras de esta naturaleza para la exportación de productos dentro el EEE

Alemania nazioarteko plataforma proposa da Europako merkatuetara sartzeko, non euskal enpresek lehia bortitza aurkitzen baitute, bai bertako eta bai atzerriko enpresen aldetik. Esportaziorako merkatu garrantzitsuenetako bat da Euskadirentzat, baina halere esan behar da merkatu heldua dela.



3. FRANTZIA

- *Frantzia lider ukazina da Europar nekazaritza arloan zein hondakin uren kudeaketan.*
- *Merkatuko bolumenari dagokionez, ingurumen-kategoriako produktuen bere inportazio-zifra 6. postuan kokatzen da, Europako bere bazkideengandik nahiko hurbil.*
- *Frantziak Europar dituen bazkide garrantzitsuenak dira Alemania, Italia eta Suitza, eta mundu mailan, berriz, Txina eta AEBak.*
- *Frantziako ingurumen-kutsadura nekazaritza arloko jarduerari zor zaie nagusiki, batik bat ongariaren erabileragatik. Hori dela eta, lege bereziak egin dituzte lurzoruen kutsadura modu egokiagoan tratatzeko.*
- *Arazo hori konpontzeko, hondakin uren sareak eta tratamendurako lantegiak eraikitzeko proiektuak sustatu ditu.*



6. postua
Ingurumen-
merkatuko BALIO
GLOBALA



6. postua
Ingurumen-kategoriako
PRODUKTUEN INPORTAZIOA




**Ingurumen-kategoriako 3
BAZKIDE KOMERTZIAL
GARRANTZITSUENAK**
1. Alemania
2. Txina
3. Italia

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuenak, guztizkoaren % 45 ordezkatzeko duelarik.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
53.4 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
3.5 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
20.2890.4 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA. ITC

Frantziak erronka handiak ditu GJHen betepenari dagokionez, baina posizio ona lortu du gobernantzaren kalitatea neurtzen duten adierazleetan. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Frantziaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#).



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento normativo	Eficacia gubernamental
24	28
Calidad normativa	Índice de percepción de la corrupción
29	23



Desempeño medioambiental


Salud ambiental	12	Saneamiento y agua potable	16	Gestión de residuos	16
Tratamiento aguas residuales	16	Saneamiento inseguro	1	Exposición a metales pesados	20



Alemania, Txina eta Italia dira ingurumen-kategoriako produktuen hornitzaile nagusiak Frantziarentzat, eta hondakin uren kudeaketako katea da bere balio-katerik garrantzitsuenak.



Principales socios comerciales



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

Frantzia esportazio-merkatu naturala da Euskadirentzat, eta euskal enpresek presentzia nabarmena dute gure industriaren traxzio-sektoreetan. Aldiz, ingurumen-sektoreko euskal enpresek ez dute euren lehentasunezko merkatutzat jotzen Frantziako ingurumen-merkatua.



Retos y barreras comerciales

Gravamen arancelario
0%

Barreras no arancelarias

- No constan barreras de esta naturaleza para la exportación de productos dentro el EEE



4. KOLONBIA

- Kolonbia bere bazkide latinoamerikarrak baino gorago kokatu da ingurumen arloko inbertsioari dagokionez.
- Merkatu-bolumenean 25. postuan dago, eta kezka handia erakutsi du arlo hauetan: hondakin uren kudeaketa, birziklapen-sistemak eta ingurumen-analisia.
- Maila globalean Txina eta AEBak ditu bazkide ekonomiko nagusi, eta Europa mailan Alemania nabarmentzen da zertxobait.
- Ingurumenarekiko azaldu duen kezka gero eta handiagoa dela medio, hainbat politika berri garatu ditu hondakinak minimizatzeke, birziklapena sustatzeko, uren tratamendurako lantegiak eraikitzeke, eta hondakin solidoei zuzendutako teknologiak eta kudeaketa-prozesuak garatzeko.
- Hori guztia lortzeko, Kolonbiak hondakin uren eta hondakinen kudeaketarako planak sortu ditu. Horrelako proiektuak lagungarri izango dira AEBek eta beste herrialde batzuek presentzia handiagoa izan dezaten Kolonbian, eta baita ere ingurumen-aholkularitzetara zuzendutako inbertsioak sustatzeko.



25. postua
Ingurumen-
merkatuko BALIO
GLOBALA



25. postua
Ingurumen-kategoriako
PRODUKTUEN INPORTAZIOA




**Ingurumen-kategoriako 3
BAZKIDE KOMERTZIAL
GARRANTZITSUENAK**
1. Txina
2. AEBak
3. Alemania

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuenak, guztizkoaren % 44 ordezkatzan duen. Atzetik doakio **Ingurumenaren zaintza, analisi eta ebaluaziorako ekipoen** katea, guztizkoaren % 22rekin.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
5.1 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
0.2 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
1.650.7 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA, ITC

GJHen betepen-maila ez da oso ona, 7. GJHaren kasuan izan ezik, zeinetan 4 puntu eskuratu baititu. Bestalde, **gobernantzen kalitatearen** adierazleei dagokienez, **erdia baino beherago** kokatzen da bi adierazletan. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu *Sustainable development report* txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Kolonbiaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu *EPI Index* indizea.



Marco normativo y político



Desempeño medioambiental



la región de LATAM de interés prioritario para las empresas del sector
condiciones sociopolíticas, las oportunidades en diversos sectores de la
el aún incipiente panorama competitivo.



ERRESUMA BATUA

Txina eta AEBak dira sektoreko hornitzaile nagusiak Kolonbiarentzat, baina Espainia ere posizio komertzial onean dago, batik

- *Erresuma Batua da ingurumen-kudeaketarekin gehien konprometitu den Europako herrialdeetako bat.*
- *Bere merkatu-bolumenari dagokionez, ingurumen-produktuen bere inportazio-zifra 8. postuan dago, bereziki garrantzitsua delarik hondakin uren kudeaketari dagokion arloa.*
- *Alemania da bere Europako bazkide nagusia, eta oso atzetik doazkio Danimarka eta Belgika. Mundu mailan, Txina eta AEBak nabarmentzen dira.*
- *Erresuma Batuak hondakin solidoen kudeaketan oinarritutako hainbat politika garatu ditu hondakin horien tratamendua hobetzeko, eta hainbat politika abiarazi ditu hondakin uren tratamendurako lantegiak garatzeko.*
- *Erresuma Batuak ingurumen arloan dauzkan proiektu ugarien artean aipatzekoak dira, besteak beste, ingurumenaren kutsadura murriztera, uren hornikuntza-sistemak hobetzera eta birziklapen-sistema eraginkorragoak garatzera bideratutakoak.*



5. postua

Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



8. postua

Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA



Ingurumen-kategoriako 3

BAZKIDE KOMERTZIAL

GARRANTZITSUENAK


1. Alemania
2. Txina
3. AEBak

■ waste water management and potable water treatment

Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

Kolonbia LATAM eskualdeko lehentasunezko herrialde bezala identifikatu da ingurumen-sektoreko enpresentzat. Bere baldintza sozio-politikoak hobetu egin dira, eta ingurumen-katearen hainbat sektoretako aukerak ugaritu egin dira oraindik hastapenetan dagoen lehia-eszenatokiaren ondorioz.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
60,46 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
4.0 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**




Iturria: ELGA, ITC

GJHen betepena moderatuki doa aurrera Erresuma Batuan, eta oraindik erronka asko ditu gainarazteko, bereziki 14. eta 15. GJHei dagokienez. Aldiz, gainerako adierazleek erakusten dute herrialde britainiarraren gobernantza kalitatea handia dela. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu *Sustainable development report* txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Erresuma Batuaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu *EPI Index* indizea.



Erresuma Batuarien ingurumen-kategoriako produktu hornitzaile nagusiak dira **Alemania, Txina eta AEBak**, eta **España hamahirugarren postuan** dago kategoria horretako hornitzaileen artean.



Erresuma Batuan tokiko lehia handia dago, merkatua heldua delako eta Europako lehiakide ugari operatzen dutelako bertan. Nahiz eta merkatu zaila izan, Euskadik tradizionalki asko esportatu izan du hara, eta euskal enpresek presentzia nabarmena dute.



6. TXILE

- Txile Latinoamerikako herrialde garrantzitsuenetako bat da, bere eremu geografikoko beste herrialde batzuk baino garatuago dagoelako. Txileren ingurumen-jarduna maila ertainean dago, baina bereziki nabarmentzen da metal astunen kudeaketa eta, maila gutxiagoan bada ere, baita ere hondakin uren tratamenduan.
- Oro har, bere merkatu-balioa baxua da. Bereziki garrantzitsuak dira Txilek uren tratamendurako egiten dituen inportazioak, ingurumen arloko inportazio guztien % 43 baitira.
- Txileren bazkide komertzial nagusiak dira Txina, AEBak, Alemania eta Italia. Aipatzekoa da lehen 3 herrialdeek presentzia dutela balio-kate bat baino gehiagotan, eta, aldiz, Italiak posizio nabarmena duela Txilek uren tratamendu katerako egiten dituen inportazioetan.
- Gobernantzaren kalitatearen adierazleei dagokionez, Txileren egoera positiboa da. Gainera, ingurumenarekiko konpromiso politiko handia du GJHen betepenari dagokionez, eta horrek bilakaera positiboa ekar lezake ingurumenarentzat, hazkunde handia eraginaz merkatu horietan epe labur-ertainean.



24. postua

Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



24. postua

Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA




Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL GARRANTZITSUENAK

1. Txina
2. AEBak
3. Alemania

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuena, guztizkoaren % 46 ordezkatzan duelarik. Atzetik doakio **Hondakinen kudeaketa eta birziklapen-sistemen** katea, guztizkoaren % 23rekin.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
6.8 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
0.3 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
2.118.2 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA, ITC

Latinoamerikako beste herrialde batzuetan ez bezala, Txileko **gobernantzaren kalitatea ona da**, lehen 40 herrialdeen multzoan sartzen delarik sailkapen guztietan. **GJHei** dagokionez, oraindik **bide luzea du egiteko** betepen-maila egoki batera iritsi nahi badu. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Txileren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#) indizea.



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento normativo	Eficacia gubernamental
29	38
Calidad normativa	Índice de percepción de la corrupción
35	25



Desempeño medioambiental

Salud ambiental 35

Saneamiento y agua potable 38

Gestión de residuos 53

Tratamiento aguas residuales 24

Saneamiento inseguro 51


Exposición a metales pesados 5

Kasu honetan ere **Txina eta AEBak** dira sektoreko bazkide nagusiak, eta atzetik doazkie Alemania eta Italia, Europako hornitzaile bezala. Eskualde mailan, Brasil eta Argentinak garrantzi handia dute hondakinen kudeaketa eta birziklapen kateko produktuen hornikuntzan.



Principales socios comerciales

ras comerciales



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

Txileko merkatua LATAM eskualdeko ekonomia garatuenetako bat da, eta horregatik da lehia-maila handiko merkatua, baina euskal enpresek badute presentzia historikoa han. Ingurumen-sektoreari dagokionez, interesgarrienetako bat da, besteak beste Baliabide hidrikoen kudeaketa katean eskaintzen dituen aukerengatik.



7. PORTUGAL

- Orain arte Portugal ez da izan herrialde aitzindaria ingurumen arloko ekimen eta helburuei dagokienez. Halere, azken urteotan hainbat politika berde aplikatu ditu eta, horri esker, bere postua hobetu du klima arloko ekintza ebaluatzen duten sailkapenetan. Aldi berean, bere kalifikazioak hobetu ditu ingurumenaren osasunarekin eta saneamenduarekin erlazionatutako ingurumen-jardunean.
- Ingurumen-merkatuko balioari eta inportazio-bolumenari dagozkien adierazleek erakusten dute Portugalgo ingurumen-sektorea ahula dela ekonomikoki.
- Inportazio-bolumenari gagozkiola, hauexek dira balio-kate garrantzitsuenak: Hondakin uren kudeaketa eta tratamendua eta Hondakinen kudeaketa eta birziklapen sistemak, ingurumen-produktuen % 70 inguruko bolumena ordezkatzeko dutelarik.
- Halere, aipatzekoa da Europako herrialdeak kontuan hartuta Espainia Portugalentzat bakarrik dela ingurumen-produktuen hornitzaile nagusietako bat.



30. postua
Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA




23. postua
Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA



Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL GARRANTZITSUENAK
1. Espainia
2. Alemania
3. Italia

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuenak, guztizkoaren % 44 ordezkatzeko duenak. Atzetik doakio **Hondakinen kudeaketa eta birziklapen-sistemen** katea, guztizkoaren % 24rekin.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
3.28 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
0.2 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
2.357.2 milioi USD (2016-20 artean)



Iturria: ELGA. ITC

GJHen betepen-maila nahiko irregularra da, zeren, 14. eta 15. helburuetan puntu bakarra lortu duen arren, 7. helburuan 4 puntu erdietsi baititu. Bestalde, **gobernantzaren kalitatea** neurtzen duten adierazleek diote bere araudi-esparruaren eta esparru politikoaren kalitatea **ona** dela. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Portugalen ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#) indizea.



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



3 4 1 1

aclima
Basque Environment Cluster



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento normativo

27

Eficacia gubernamental

37

Calidad normativa

44

Índice de percepción de la corrupción

33



Desempeño medioambiental

Salud ambiental 24

Tratamiento aguas residuales

Saneamiento y agua potable 28

Saneamiento inseguro 40

Gestión de residuos 20


Exposición a metales pesados 52



Espainia Portugalen **hornitzaile nagusia** da sektoreko produktuei dagokienez, eta hurbiletik jarraitzen dio Alemaniak; biak dira hornitzaile garrantzitsuak ingurumen-sektoreko balio-kate guztietan.



Principales socios comerciales



Retos y barreras comerciales

Gravamen arancelario

0%

Barreras no arancelarias

- No constan barreras de esta naturaleza para la exportación de productos dentro el EEE

Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

Lehia handia dago Portugaleko merkatuan, nazioarteko eragile askok operatzen baitute bertan. Kasu honetan, aipatzekoa da Portugalek tradizio komertzial handi duela Espainiarekin, nahiz eta ingurumenaren testuinguruan Portugal ez den jotzen lehentasunezko merkatutzat.



8. JAPONIA

- Japoniakoa da bigarren ingurumen-merkatu handiena, AEBak bakarrik dituelarik aurretik. Ingurumen-produktu gehien inportatzen duen herrialdeetako bat da.
- Balio-kate garrantzitsuena Uren tratamendua da, inportazio guztien %48 ordezkatzeko duelarik; portzentaje oso altua aztertutako herrialdeen artean.
- Txina eta AEBak dira bere bazkide komertzial garrantzitsuenak, baina Alemania hirugarren dago, posizio ona duelarik ingurumen-analisirako ekipoei dagokionez.
- Japoniako araudi arloko kalitatea ertaina da balizko beste merkatu batzuekin alderatuta. GJHen betepen-maila baxua du, baina halako hobekuntza-zantzu batzuk nabari zaizkio.
- Bere teknologia- eta ezagutza-maila handia dela eta, herrialde garrantzitsutzat jotzen da, komeniko litzatekeelako bere ezagutza teknikoak eta teknologia osagarriak eskuratzea.



2. postua
Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



5. postua
Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA




Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL

1. Txina
2. AEBak
3. Alemania

Japoniako ingurumen-merkatua mundu mailako bigarrena da balioari dagokionez; eta Hondakinen kudeaketaren eta birziklapen sistemen balio-kateak inportatutako ingurumen-produktu guztien %48 ordezkatzeko du.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
136.4 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
1.4 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
33.818.7 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA. ITC

GJHen betepenari dagokionez, oraindik **erronka handiak** ditu aztertutako bi GJH-tan, aldiz, bere **governantza**ren **kaltatea** ona da, sailkapenaren goiko aldean kokatzen baita adierazle guztietan. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Japoniaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#) indizea.



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento
normativo
18

Eficacia
gubernamental
15

Calidad
normativa
23

Índice de percepción
de la corrupción
19



Desempeño medioambiental

Salud
ambiental
14

Saneamiento
y agua
potable
17

Gestión de
residuos
25

Tratamiento
aguas
residuales

Saneamiento
inseguro
1

Exposición a
metales
pesados **1**

Fuente: ITC, OECD y Market Access database

Maila tekniko eta lehiakor oso handia du, erreferentziakzko eragile globala delarik bere merkatuan probatu eta aplikatutako ingurumen-teknologia esportatzeko. Euskal enpresak desabantaila lehiakor argia du Japoniako ingurumen-sektorean.



Txina, AEBak eta Alemania dira ingurumen-produktuen hornitzaile garrantzitsuenak Japoniarentzat, mendekotasun handia duelarik Txina eta AEBekiko hondakin uren kudeaketako balio-katea hornitzeko.

- *Italia ingurumenarekiko konpromiso handia duen merkatu europarren artean kokatzen da, batik bat hondakinen kudeaketan eta ingurumen arloko analisian.*
- *Merkatu-bolumenari dagokionez, ingurumen-kategoriako produktuen bere inportazio-zifrak 11. postuan kokatu du maila globalean.*
- *Europar duen bazkide garrantzitsuenak Alemania da, eta mundu osoko bazkide nagusia, berriz, Txina.*
- *Italiak hainbat politika garatu ditu ur hornikuntzaren, hondakin uren eta hondakin arriskutsuen kudeaketa hobetzeko.*
- *Hona hemen kutsadurari eta beste hainbat arazori konponbidea bilatzeko garatu dituen proiektu batzuk: garraio publikoaren erabilera bultzatzea eta ibilgailu elektrikoaren erabileraren sustatzea.*



9. postua

Ingurumen-merkatuko balio globala
Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

GLOBALA



11. postua

Ingurumen-kategoriako
PRODUKTUEN INPORTAZIOA



Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL GARRANTZITSUENAK


1. Alemania
2. Txina
3. AEBak

Maila tekniko eta lehiakor oso handia du, erreferentziazko eragile globala delarik bere merkatuan probatu eta aplikatutako ingurumen-teknologia esportatzeko. Euskal enpresak desabantaila lehiakor argia du Japoniako ingurumen-sektorean.

Italia da **Europako laugarren ingurumen-merkatu garrantzitsuenak**, Frantziaren atzetik. **Uren kudeaketa eta tratamendurako** katea da inportazio-bolumen handiena duena, ingurumen arloan inportatzen dituen produktu guztien % 40 ordezkatzen duelarik.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
33.09 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
2.2 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
13.731 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA, ITC

Italiak **erronka handiak** ditu **GJHen** betepenari dagokionez, nagusiki 14. eta 15. helburuetan. Bere **gobernantzen kalitateari** erreparatuz gero, aipatzekoa da txosten honetan aztertu diren Europako beste herrialde batzuen **azpitik** dagoela, eta alde handi samarrarekin gainera. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Italiaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#)



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



Calidad de la gobernanza

Cumplimiento normativo

72

Eficacia gubernamental

58

Calidad normativa

56

Índice de percepción de la corrupción

52



Desempeño medioambiental

Salud ambiental 21

Saneamiento y agua potable 11

Gestión de residuos 29

Tratamiento aguas residuales 33

Saneamiento inseguro

Exposición a metales pesados 25




Alemania, Txina eta AEBak dira Italiaren ingurumen arloko produktuen hornitzaile garrantzitsuenak, eta Espainia bederatzigarren postuan kokatzen da sailkapen horretan, Eslovakia eta Txekiar Errepublikaren atzetik.



Principales socios comerciales

Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database



Retos y barreras comerciales

Gravamen arancelario

0%

Barreras no arancelarias

- No constan barreras de esta naturaleza para la exportación de productos dentro el EEE

Europa osoan nabari den joerarekin bat etorritz, Italiako merkatuan lehia-maila handia dago, eta nazioarteko eragileek presentzia komertzial handia dute. Baina, oro har, potentzial handiko merkatutzat jotzen da euskal enpresentzat.



10. HERBEHEREAK

- Nahiz eta posizio apalagoa duen maila globalean, Herbehereen ingurumen-merkatuak kokapen esanguratsua du Europan, Europako bost ingurumen-merkatu garrantzitsuenen artean baitago balioari dagokionez.
- Bere merkatuak Europa mailan duen protagonismoa bat dator ingurumen-jardunean lortu dituen emaitza onekin. Ingurumen-kalitateari eta politika berdeen garapenari buruzko adierazleen arabera, konpromiso eta kontzientzia handieneko herrialdeetako bat da ingurumenaren arloan.
- Kategoria honetako produktuen inportazioaren arloan, aipatzekoa da hondakin uren kudeaketa eta tratamendurako produktuei dagokiena, guztizko bolumenaren ia erdia baita.
- Alemania da bere bazkide komertzial garrantzitsuen ingurumen-produktuen inportaziorako, eta atzetik ditu AEB eta Txina, baina zifra askoz txikiagoekin.
- Herbehereak ahalegina egiten ari dira etorkizun jasangarriagoa eraikitzeko, energia berdean oinarritutako ekimenak abiaraziz eta, besteak beste, hondakinak eraldatzeko lantegien Europa mailako proiektu aitzindariak martxan jarritz.



13. postua
Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



10. postua
Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA




Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL GARRANTZITSUENAK
1. Alemania
2. Txina
3. AEBak

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea da balio-katerik garrantzitsuen, guztizkoaren % 42 ordezkatzen duelarik. Atzetik doakio **Ingurumenaren kontrol, analisi eta ebaluaziorako ekipoen katea**, guztizkoaren % 27rekin.

- Ingurumen-merkatuko balio globala:**
23.11 mila milioi USD (2020)
- Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
1.5 mila milioi USD (2020)
- Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
13.736.7 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA, ITC

Herbehereek **erronka garrantzitsuak** dituzte GJH-en arloan, batez ere **14. eta 15. helburuetan**. Bere **gobernantzen kalitateari** dagokionez, aipatzekoa da Herbehereak aztertutako beste herrialde europar batzuk baino askoz beherago daudela sailkapenean. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [Sustainable development report](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Herbehereen ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [EPI Index](#) indizea.



Marco normativo y político

Grado de consecución ODS



Calidad de la gobernanza




Desempeño medioambiental



Alemania, Txina eta AEBak dira ingurumen-produktuen hornitzaile garrantzitsuenak Herbehereentzat, mendekotasun handia dutelarik AEBekiko eta Singapurrekiko ingurumenaren analisi eta monitorizaziorako balio-katea hornitzeko.



Principales socios comerciales



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database



Retos y barreras comerciales



Herbehereak merkatu txikia dira, eta lehia-maila altua ez ezik, Europako potentzien presentzia komertzial handia dute. Oro har, ingurumen-sektoreko euskal enpresek ez dituzte ikusten Herbehereak lehentasunezko jomuga-merkatu bezala.



11. TXEKIAR ERREPUBLIKA

- Azken urteotan hazi egin da Txekiar Errepublikaren ingurumen-konpromisoa, batez ere hondakin uren kudeaketa eta birziklapen-sistema arloetan.
- Ingurumen-produktuen bere inportazio-zifra 14. postuan dago aztertu diren herrialdeen artean. Balio-kateei dagokionez, bereziki garrantzitsua da uren tratamendu eta kudeaketarena, kate horretarako egiten baititu ingurumen-produktuen inportazio gehienak.
- Sektorerako bazkide komertzialei gagozkiela, inportazio gehienak Alemaniatik egiten ditu, eta bera da bere hornitzaile nagusia kate guztietan. Atzetik doazkio Hegoafrika, Txina edo Polonia, zeintzuk hornitzaile esanguratsuak baitira balio-kate espezifiko desberdinetan.
- Txekiar Errepublikak hainbat politika garatu ditu hondakin-bilketa sustatzeko, eta baditu legeria batzuk etorkizuneko hondakin sorrerari aurrea hartzeko.



31. postua
Ingurumen-
merkatuko BALIO
GLOBALA



14. postua
Ingurumen-kategoriako
PRODUKTUEN INPORTAZIOA




**Ingurumen-kategoriako 3
BAZKIDE KOMERTZIAL
GARRANTZITSUENAK**
1. Alemania
2. Hegoafrika
3. Txina

Inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamenduko** katea eta **Hondakinen kudeaketa eta birziklapen-sistemen** katea dira balio-katerik garrantzitsuenak, guztizkoaren % 64 ordezkatzen dutelarik.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
2,97 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
0.1 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
8.201 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera



Iturria: ELGA. ITC

GJHen betepen-maila bide onetik doa Txekiar Errepublikan. Gainera, puntuazio **egokia** lortu du **gobernantzaren kalitateari** buruzko adierazle guztietan. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [*Sustainable development report*](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Txekiar Errepublikaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [*EPI Index*](#) indizea.



Marco normativo y político




Desempeño medioambiental



Alemania da Txekiar Errepublikaren **bazkide komertzial garrantzitsuena** ingurumen-produktuen inportazioan; Airearen kutsadura kateko produktuen alorrean bazkide gisa nabarmentzen dira Hegoafrika eta EB.



Principales socios comerciales



Retos y barreras comerciales



representa komertziala erakarri du pixkanaka, eta horrek asko handitu du hango Europa, eta bereziki Txekiar Errepublika, aukera handiko merkatutzat jotzen dira



12. KANADA

- Kanada ingurumen arloko garapen handiena duen herrialdeetako bat da, erreferente globala da Europa iparraldeko herrialdeekin batera, eta posizio positibo edo oso positiboa lortu du ingurumen-jardunari buruzko adierazle guztietan.
- Bere ingurumen-merkatuaren balio estimatua handia da, eta ingurumen arloko produktuen inportazio-bolumena ere bai. Ingurumen-aholkularitzaren merkatuari esker, merkatu handiena duen munduko seigarren herrialdea da.
- AEBak dira bere bazkide komertzial garrantzitsuen alde handiarekin, Txina oso atzean kokatzen delarik inportazio-mailari dagokionez. Hirugarren bazkide komertziala Mexiko da, baina Txinaren oso atzetik bolumena kontuan hartuta.
- Balio-kateei gagozkiela, batez ere analisi eta monitorizaziorako ekipoen katerako inportatzen du, baina uren tratamenduko katea da merkatu handiena duena.
- Kanadako araudiaren kalitatea bikaina da adierazle guztietan. GJHen betepen-maila dezente ona duen arren, defizit bat antzematen da "Lurreko ekosistemetako bizitza" GJHan.



7. postua

Ingurumen-merkatuko BALIO GLOBALA



9. postua

Ingurumen-kategoriako PRODUKTUEN INPORTAZIOA



Ingurumen-kategoriako 3 BAZKIDE KOMERTZIAL


GARRANTZITSUENAK

1. AEBak
2. Txina
3. Mexiko

Kanadako ingurumen-merkatuaren balioa **7. postuan dago mundu mailako sailkapenean**, eta produktuen inportazio-bolumenari dagokionez, **Hondakin uren kudeaketa eta tratamendua** (% 47) eta **Hondakinaren kudeaketa eta birziklapen-sistemak** (% 19) balio-kateak dira garrantzi gehien dutenak.

- **Ingurumen-merkatuko balio globala:**
41,2 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen-aholkularitzako balio globala:**
2,2 mila milioi USD (2020)
- **Ingurumen arloko produktuen inportazioa:**
18.462,9 milioi USD (2016-20 artean)

Balio-kateen pisu erlatiboa inportazio-bolumenaren arabera




Iturria:ELGA. ITC

Kanada munduko **lehen 15 herrialdeen multzoan dago gobernantzaren kalitateari buruzko adierazleetan**, baina oraindik ere **erronka garrantzitsuak** ditu **GJHen betepen-mailan**. Informazio gehiago nahi baduzu GJHen betepen-mailaren adierazleei buruz, kontsultatu [*Sustainable development report*](#) txostena eta informazio gehiago nahi baduzu Kanadaren ingurumen arloko jardunari buruz, kontsultatu [*EPI Index*](#) indizea.



Marco normativo y político




Desempeño medioambiental



AEBak, Txina eta Mexiko dira Kanadarekin ingurumen-kategoriako produktu hornitzaile garrantzitsuenak, eta bereziki aipagarria da **Europak ez duela presentziarik** kategoriaren honetako produktuen **hornitzaile** gisa.



Principales socios comerciales



Retos y barreras comerciales



Iturria: ITC, ELGA eta Market Access database

a Estatu Batuen eragina. Horrek lehia-maila handiagoa sortzen du bere dian baitago, Kanadako nahiz Estatu Batuetako monopolioak lider direlarik



13. TXINA

- Txina da ingurumen arloko teknologien merkatu gorakor handiena, eta azkarren hazten ari denetako bat ere bai. Ingurumenaren aldeko apustu handiena egin duen Asiako bigarren herrialdea da Japoniaren ostean, 92 mila milioi USD inguruko merkatu-balioarekin.
- Inportatzen diren produktu gehienak sektore hauetara bideratuta daude: Hondakin uren kudeaketa eta tratamendua eta Ingurumenaren zaintza, analisi eta ebaluaziorako ekipak.
